

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2018ko azaroaren 15ean Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-20:00

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate (Euskarako zinegotzi ordezkaria)

EH BILDU

EAJ

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

BAGERA ELKARTEA

BIZARRAIN ELKARTEA

BERRITZEGUNEA

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

KUTXABANK

Urtxintxa

AEK

BATZEN

REALA

EUSKADIKO KUTXA

Euskara Zerbitzuaren langileak:

(Zerbitzu burua)

(Atal burua)

Herri Partaidetza saila

(Teknikaria)

EZ DIRA BERTARATU:

ULIAKO AUZO ELKARTEko ordezkaria

LABeko ordezkaria

SAN SEBASTIAN SHOPS DONOSTIAko ordezkaria (ezin etorria adierazi du)

IRABAZI (ezin etorria adierazi du)

PSE_EE (ezin etorria adierazi du)

Euskal Herriko Unibertsitate ordezkaria

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

2.- Udaleko Herri Partaidetza sailak Kontseilu Sektorialaren inguruan egindako azterlanaren aurkezpena eta lanketa

Herri Partaidetzako Olatz Mujika teknikariak Euskara Kontseiluaren balorazioaren berri eman eta ondorioak aurkeztu ditu.

Ondoren ariketa bat egin dute kontseilu sektorialeko partaideek balorazioan azaldutako ondorio horien gainean hausnartu eta neurri zuzentzaileak lehenesteko.

Bileran zenbait proposamen egin dira kontseilua hobetzeko:

- Deialdia denbora nahikoarekin bidaltzea (15 egun aurretik behintzat) erakunde-elkarteetan gaiak eztabaidatu ahal izateko.
- Bileretan egindako ekarpenen inguruan ez dago itzulketarik, ez da jakiten kontuan hartzen diren ala ez.
- Bileretan kideen ekarpen gehiago jasotzeko bideak aztertzea (talde txikietan bildu, errondak egin...).
- Batzorde iraunkorraren funtzioak aldatzea edota funtzionamendua aldatzea (urteko bileren datak adostu eta bakoitzaren gai-ordena zehazteko posta bidez egin daiteke bilera fisikorik egin gabe).
- Urteko memoria edo balantze bat aurkeztea.
- Aktetan gaien egoera jasotzea (urtean jorratu diren gai guztien zerrenda bidaltzea esaterako).
- Bilera egin eta 20 eguneko epean akta bidaltzea.
- Kontseilu Sektoriala eratu zenetik bada bilera bakar batera etorri ez diren hainbat pertsona. Horiek Kontseiluko kide izateari uzteko prozesua bideratzeko proposamena egin da.

Hobekuntzak Kontseilu guztientzat maila orokorrean planteatuko dira, ahal den neurrian bakoitzaren berezitasunak errespetatuz, eta horren berri emango da.

3.-Euskara Zerbitzuaren 2019ko aurrekontu-proposamenaren aurkezpena

Lehendakariak 2019rako Euskara Zerbitzuaren aurrekontu-proiektua aurkeztu du, sektoreka eta bigarren zein laugarren kapituluei buruzko gastuak aipatuz.

Berritzeguneko ordezkariak aipatu du gero eta gazte etorkin gehiago dagoela eskoletan eta horiek euskara mendera dezaten zerbait egin beharra dagoela, nerabe-gazte garaian iristen direnez ari dela argitu du. Lehendakariak adierazi du, berez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren eskumena dela hori baina egia dela errealitate bat dela.

Bestalde, lehendakariak aipatu du langabeentzako doako ikastaroak izango direla datorren urtean baldin eta HABEren eta Udalen laguntzekin B2 arteko doakotasuna lortuko ez balitz. B2 maila arteko ikastaroak dohainik izatera iritsiko bagina, Euskara Zerbitzuaren asmoa litzateke langabeentzat bideratzen den diru zakua herritar guztiei zuzendutako euskara ikasteko diru laguntza arruntetara bideratzea.

EHBilduko ordezkariak aipatu du horretan talde batzuk lehenetsi beharko liratekeela eta irizpideak jarri beharko liratekeela. Doakotasunaren inguruan, aurreko legealdian egin zela zenbait gizatalde lehenesteko proposamena azaldu zuen, Gipuzkoako udalekin landutako proposamena izan zen, zailtasun ekonomiko eta sozialak dituzten gizataldeak bereziki laguntzeko. Prebentzio neurri bat zela dio, gizatalde horiek babesgabe ez uzteko, laguntzetarako diru saila amaituz gero.

Lehendakariaren ustez, B2ra arte guztientzat doakoa izatea da irizpidea (asistentzia eta aprobetxamendua ziurtatuta).



3.-Euskaraldia-Euskararen Eguna

Euskaraldia dela eta, Euskara Zerbitzuak eta Bagerak egindako lanaren berri eman da eta ordura arteko datu zehatzak banatu zaizkie kontseilukideei. Bestalde, Euskaraldiaren hasiera dela eta, azaroaren 23an Boulevardean jarriko den karpan antolatuko diren ekintzen berri eman da batetik, eta bestetik, Euskaraldia dela eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra hiriko 16 auzoetan antolatutako jarduerekin osatu den egitaraua ere banatu da.

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 20:00etan.